

Ondo da! Orain arte eskutitza nola egin dezakegun aztertu dugu hortaz, praktikarako epea ailegatu da. Horretarako, hurrengo atalean, egoera ezberdinak proposatuko dizkizut. Batzuk, nik bururatutakoak eta beste batzuk zuzenean ohiko azterketetan agertu direnak. Has gaitezen!

BIZIKLETA ISTRIPU GEHIAGO

EGOERA

Txirrindulari-elkarte bateko ordezkaria zara. Azken boladan, txirrindularien istripuen kopuruak gora egin du. Elkartekideok kezkatuta zaudete. Hori dela eta, egoera egunkari batean salatu eta iritzia eman nahi duzue

Azaldu zuen kezka arrazoia.

- Adierazi zergatik egin duen gora istripu-kopuruak.
- Salatu, labur, errepidean ikusitako jokabide desegokiren bat.
- Adierazi zer neurri hartu beharko lirakeen, zuen iritziz, istripuak saihesteko.

IKASLE ZARATATSUAK ALOKATUAK

EGOERA

Zuen eraikinean etxebizitza batzuk alokatzen dizkiete ikasturtero ikasleei. Azken urteetan ikasle zaratatsuak egokitu zaizkizue. Bizilagunen bileretan bizilagunok zuen kexa adierazi diezue jabeei, baina egoera ez da batere aldatu. Horiek horrela, udaletxean kexa idatziz aurkeztea erabaki duzue.

Adierazi zergatik erabaki duzuen gutuna idaztea.

- Azaldu, modu orokorrean, nolako bizilagunak bizi zireten eraikin horretan (adina, familia txikiak edo handiak diren, eta abar).
- Adierazi nolako egoera bizi duzuen alokairuen ondorioz, eta zerk haserretzen zaituzten gehien eta zergatik.
- Proposatu konponbideren bat, eta eskatu neurriren bat hartzeko.

HEMENGOA KONTSUMITU

EGOERA

Nekazariak zarete eta zuen komunitateko merkatuetan gero eta gehiago, kanpoko produktuak ikusten direla konturatu zarete. Hori dela eta, gobernuari kexa bat idaztea erabaki duzue

Adierazi zergatik erabaki duzuen gutuna idaztea.

- Azaldu, modu orokorrean, nolako arazoak izaten ari dituzue egoera dela eta
- Adierazi nolako egoera bizi duzuen konpetibitatearen eraginez
- Proposatu konponbideren bat, eta eskatu neurriren bat hartzeko.

JOLASLEKUA EGOERA TXARREAN

EGOERA

Udalak, orain dela urte batzuk, jolastoki berri batzuk eraiki zituen. Baina ez dituen mantendu orain oso egoera txarrean daude eta umeentzako arriskuak dira. Hori dela eta, egoera salatu eta zuen iritzia eman nahi duzue

Azaldu zuen kezka arrazoia.

- Adierazi zergatik daude egoera txarrean
- Salatu, labur, errepidean umeak izan dituzten arazoak
- Adierazi zer neurri hartu beharko lirakeen, zuen iritziz, istripuak saihesteko.

HERRIKO LEKU PUBLIKOAK ERABILI

EGOERA

Udalak, hainbat leku publiko eraiki ditu. Adibidez, eskola eta parke berri bat. Aina 18 ailegaterakoan itxi egiten dituzte. Auzokideak elkartu dira eta leku horiek edozein momentuan erabiltzeko eskaera eskatu nahi dute

Adierazi zergatik erabaki duzuen gutuna idaztea.

- Azaldu, modu orokorrean, zergatik uste duzue irekiak egon beharko lirakeela
- Proposatu zuentzako ondo egongo legokena eta esakera egin.

AUZOKIDE ZARATATSUA

EGOERA

Zuen eraikinean auzokide zaratatsu bat dauka. Askotan deitu diezue polizia baina azkenean ez diote ezer ez egiten. Horiek horrela, udaletxean kexa idatziz aurkeztea erabaki duzue.

Adierazi zergatik erabaki duzuen gutuna idaztea.

- Azaldu, modu orokorrean, nolako arazoak izaten ari dituzue egoera dela eta
- Adierazi nolako egoera bizi duzuen eraginez
- Proposatu konponbideren bat, eta eskatu neurriren bat hartzeko.